

**Testuliburua**

'English In Mind 3' testuliburua eta ariketa koadernoan erantzunik gabe

**Zure ikastaroa**

**Ikastaroaren xedea, gai desberdinetan, mintzamenean zein idazmenean, zure konfidantzaz komunikatzeko gaitasuna garatzea da.**

- **Mintzamena.** Rol ariketa, mintzaldi eta eztabaida ariketa eta aurkezpenen bidez, beste ikaskideekin eta talde zabalagoetan mintzamen trebetasuna praktikatu duzu.
- **Idazmena.** Idazmena praktikatu ahal izango duzu testu mota desberdinak landuz: artikuloak, gutunak (formalak zein informalak) emailak, blog sarrerak, istorioak eta erreportajeak.
- **Irakurmena.** Iragarpena, ideia orokorra lortzeko irakurketa, testuinguruaren arabeko ideia zehatza eta esanahia lortu bezalako irakurmen trebetasunak garatuko dituzu. Era berean, hizkuntz bakarreko hiztegiak erabiltzen ikasiko duzu.
- **Entzumena.** Egunerokotasuneko egoera desberdinetan edukia iragartzeko eta puntu nagusienak zein zehatzak ulertzeko entzumen gaitasuna garatuko duzu.
- **Ikasteko gaitasunak.** Zure ikas-prozesuaren gainean arduratsu izatera bultzatuko zaitugu.

Zure hizkuntza gaitasunak jende desberdinaren aurrean erabiltzeko gai izan beharko duzu, eta horregatik, ahalik eta ikaskide gehienekin lan egin beharko duzu.

Gelatik kanpo ere ingelesez aritzen ikasiko duzu, liburutegian liburuak zein bideoak maileguan hartuz edo ingelesez dauden webguneak bisitatuz.

Gramatikako eta hiztegiko zenbait arlo errepasatu eta hainbat berri ikasiko dituzu. Azken hauek, zure mintzamen zein idazmenean erabiltzen saiatu beharko duzu.

Ziurtatu zaituzte ikasitako hitz berri guztiak idatzi eta klase bakoitzaren ondoren hartutako notak errepasatzen dituzula. Ariketa koadernoan ikasitako guztia errepasatzeko aparteko hamaika ariketa aurkituko dituzu.

Zure ahoskera hobetzen konzentratu beharko duzu. Entzun ingelesez dauden entzungaiak ahalik eta gehien eta ohitu zaituzte bertan azaltzen diren soinu eta ahosketetara.

- **PET azterketa.** Ekainerako PET azterketa burutzeko gai izan beharko zinateke, eta horregatik, klasean azterketa prestatzeko hainbat ariketa burutuko dituzu. Otsaila aldean, azterketa praktikatzeko ariketa bat burutuko duzu. PET azterketa ofiziala egitea ez da derrigorrezkoa.

### Mailaren deskripzioa

Jarraian ikastaroaren amaieran zein nolako gaitasunak izan beharko dituzun zehazten da.

### Entzumena

- Igorleak garbi hitzegiten badu mezu orokorrak eta eguneroko gaien inguruko xehetasunak uler ditzaket.
- Igorleek garbi hitzegiten badute, eta mintzamen arrunt batean, nire inguruan ematen den eztabaida batean puntu nagusienak uler ditzaket.

### Mintzamen ekoizpena

- Irudi baten deskribapena egiteko gai naiz, bere inguruko informazioa emanaz eta gaiaren inguruko iritzia azalduz.
- Ezagutzen dudan gai baten inguruko aurkezpen laburra egin dezaket hau prestatzen badut.
- Modu zehatzean eta konfidantzaz liburu/film baten laburpenaren deskripzioa modu antolatuan egin ahal dut.

### Mintzamen interakzioa

- Informazioa elkartrukatu eta kontrolatu ahal dut.
- Modu errazean eztabaida bat izan ahal dut, nire iritzia azaldu eta erabaki bat hartu.
- Akatsak akats jendeak nik esandakoa uler dezake.

### Irakurmena

- Interneten ezagunak zaizkidan gai desberdinen inguruko testuak aurki ditzaket eta puntu nagusienak ulertu.
- Gai baten inguruan informazio zehatza eta ideia orokorra ulertzeko gaitasuna dut, nahiz eta testuan azaltzen den guztia ez ulertu.
- Moldatutako liburu baten laburpena edo istorio labur bat nahiko ondo eta hiztegiaren laguntzaz uler dezaket eta testuinguruaren barruan, zenbait hitz eta espresioen esanahia iragar dezaket.

### Idazmena

- Nire esperientzien inguruan eta hauekiko nik ditudan sentimenduen inguruan testu sinpleak idazteko gai naiz, adibidez, bidaia baten inguruan, eskolako aldizkarirako edota ikasle aldizkari baterako.
- Gutun formal bakun bat, artikulo bat edota pelikula baten inguruko laburpena idazteko gai naiz.
- Testu bakun baina koherente bat idazteko gai naiz, paragrafo desberdinetan banatua eta lokailu formal/informalekin.

Goikaldean zehaztutako ariketak burutu ahal izateko hizkuntzaren honako atalei aurre egin beharko diezu:

HIZTEGIA	GRAMATIKA
Honako gaien inguruko hiztegia: Musika eta/edo osasuna, Lorpenak, Ezbeharrak, Ekitaldiak eta ospakizunak, Harremanak, Komunikabideak, ospea. Berealdiko adjektiboak Espresioak/'phrasal verbs' get, take, speak, talk aditzekin.	Aditz laguntzaileak indarra emateko eta errepikapenak ekiditeko Gerundioa eta infinitiboa Narrazio denborak 'Perfect tenses': present perfect simple/cont. 'Future simple' eta 'continuous', etorkizun formak 'Passive' eta 'causative' 'So/such' Artikuloak Hanpadura (cleft sentences) Erlatibozko perpausak (defining/non defining) Past modals I wish/if only

